

UDAL ESKOLA KONTSEILUAREN BATZORDE IRAKUNKORRAK 2.010eko URRIAREN 19n IZANDAKO BATZARRARI DAGOKION AKTA.-

Batzarrerako finkatutako gai zerrendaren arabera, ordu bakoitzean eta gai bakoitzari buruz gertatua jarraian adierazten da

Idazkari lanetan, Bittor Zarrabeitia (Hizkuntza Normalizaziorako Teknikaria).

1).- 9,30ean: ABESBATZEN KONTZERTUAK.

Batzarreratuak:

- Seber Altube Ikastola.
- Mertzede Ikastetxea.
- San Fidel Ikastola.

Azken urteetan egin bezala, zentro bakoitzak aukeratuko du noiz egin agerraldia eta aretoa erabili ahal izateko Kultur Etxearekin harremanetan jarri beharko da. Antzerki jardunaldiak behin finkatuz gero, zehaztuko dute eguna, antzerki saioarekin batera burutzeko asmoa dute eta.

2).- 10,00etan: DANTZARI EGUNA.

Batzarreratuak:

- Seber Altube Ikastola.
- Mertzede Ikastetxea.
- Barrutia Ikastetxea.
- Allende Salazar Ikastetxea.

Hartutako erabakiak:

1.- 2010eko apirilaren 10ean egitea.

2.- Gainerako zehaztasunak (lekua, entseiuak, gurasoen batzarra,...) hurrengo batzar batean finkatuko dira: urtarrilaren 18an, goizeko 10:30ean.



3.- Dantzari eguna: apirilak 10. Desfilerako hurrenkera:

- Barrutia ikastetxea.....
- San Fidel Ikastola.....
- Seber Altube ikastola.....
- Mertzede ikastetxea.....
- Allende Salazar ikastetxea....

4.- Egitaraua, iazko berbera:

- Dantzari dantza (agintariena, banango, ezpata joko txikia, txotxongilo).
- Makil I, makil II, txulalai, zapatain dantza, San Petrike.
- Gipuzkoako makil txiki, euzko dantza, arku-dantza, zinta dantza.
- Amaiera: fandango, arin-arin eta Benafarroako martxa.

3).- 10,30ean: X. IDAZLAN KOADERNOAK.

Batzarreratuak:

- Seber Altube Ikastola.
- Mertzede Ikastetxea.
- Barrutia Ikastetxea.
- Allende Salazar Ikastetxea.
- San Fidel Ikastola.
- Barrutialde Institutua.
- HHI-EPA.

Hartutako erabakiak:

1).- Liburuen **portadetarako lehiaketa** bat antolatuko da, iazkoari jarraiki (1. eranskinean daude baldintzak). Lanak aurkezteko epemuga:2010eko urtarrilaren 8a.

2).- Idazlanak aurkezteko **iazko baldintzak eurak mantentzea:**

ZIKLOA	LAN KOPURUA	ORRI KOPURUA-IDAZTARUAK
L.H. 1. Zikloa	2 idazlan zentro bakoitzeko	Orrialde bateko lanak eskuz idatzita, marrazkia barru
L.H. 2. Zikloa	“ “ “ “	2 orrialdeko lanak eskuz idatzita, marrazkia barru
L.H. 3. Zikloa	“ “ “ “	3 orrialdeko lanak eskuz idatzita, marrazkia barru
DBH 1. Zikloa	“ “ “ “	3 orrialdeko lanak , marrazkia barru,

		ordenadorez idatzita eta disketean (Word programa, letra tipoa Times New Roman, tamaina 12a, interlineatu bikoitza, orrialdeko 25 lerro)
DBH 2. Zikloa	“ “ “	4 orrialdeko lanak , marrazkia barru, ordenadorez idatzita eta disketean (Word programa, letra tipoa Times New Roman, tamaina 12a, interlineatu bikoitza, orrialdeko 25 lerro)
HHI-EPA	2 idazlan	4 orrialdeko lanak , marrazkia barru, ordenadorez idatzita eta disketean (Word programa, letra tipoa Times New Roman, tamaina 12a, interlineatu bikoitza, orrialdeko 25 lerro)
BATXILERGOA	6 Gernika Institutukoak 4 Barrutialde Institutukoak	3 orrialde <u>gutxienez</u> , marrazki barik, ordenadorez idatzita eta disketean (Word programa, letra tipoa Times New Roman, tamaina 12a, interlineatu bikoitza, orrialdeko 25 lerro)

3).- Lanak aurkezteko epe-muga: otsailak 11.

4).- Irakurketa ekitaldiak: maiatzak 5 (LHkoa) eta 6 (DBH/Batxilegokoak). Saritzat eskola-materiala erosteko bonoak emango dira, 30 €koak LHkoentzat eta 40 €koak DBH-Batxilergoentzat).

5).- Hurrengo batzarra portada lehiaketarako epai-mahaiarena izango da eta bertan aztertuko dira Idazlan koadernoen gainerako guztiak.

4).- 11,30ean: XXIII. ANTZERKI JARDUNALDIAK.

Batzarreratuak:

- Seber Altube Ikastola.
- Mertzedek Ikastetxea.
- Barrutia Ikastetxea.
- Allende Salazar Ikastetxea.
- San Fidel Ikastola.

Jardunaldiak noiz egin aztertu da, 2011n aste santua atzeratu egiten delako eta eskolaz-kanpoko ekitaldiak pilatu egiten zaizkigulako.

Hartutako erabakiak:

1. Egunak: maiatzak 25, 26, 27 (ingelesezko ekitaldiak maiatzaren 30ean).
- 2.- Entsegu egunak: maiatzak 20, 23, eta 24. 3.- Ingelesezko ekitaldiak azken egunean (barikuz). ETC expresaren eskaintzari eutsiko zaio (LHkoentzat bi ekitaldi eta DBHkoentzat beste bi).
- 4.- Sariak.- Taldeei diploma bat ematea, oroigarri gisa, eta antzerki saio baterako sarrera bana antzezleei.
- 5.- Hurrengo batzarra, urtarrilaren 18an, goizeko 10:00etan, egitaraua zehazteko (orduak eta ekitaldiak).

Gernika-Lumon, 2010eko urriaren 19an.

Idazkari lanetan,

Bittor Zarrabeitia
Hizkuntza Normalizaziorako Teknikaria



I. ERANSKINA

X. IDAZLAN KOADERNOAK (2011) PORTADA LEHIAKETA

BALDINTZA ARAUAK

1.- Partaideak.- Gernika-Lumoko Udal Eskola Kontseiluan parte hartzen duten zentroetako ikasleek hartu ahal izango dute parte, LHko portadarako LHko ikasleek eta DBH/Batxilergoko portadarako maila bereko ikasleek.

2.- Lanak aurkezteko epemuga 2011eko urtarrilaren 28a izango da.

3.- Lan kopurua.- LHko portadarako zentro bakoitzak 2 lan aurkeztuko ditu, aldez aurretik aukeraketa zentroak berak eginda. DBH/Batxilergoako ere berdin, baina bakoitzak 3 lan aurkeztuko ditu.

4.- Lanen ezaugarriak:

- **A4 neurrikoak** izango dira.
- **LHko lanak eskuz** egindakoak izango dira, baina kontuan hartu beharko da eskaneatzeko egokiak izan beharko direla, erreliebe bakoak. Epaimahaiak ere kontuan hartuko du baldintza hori hautaketarako.
- **DBH/Batxilergoko lanak euskarri digitalean** aurkeztu beharko dira.
- Lan guztietan honako **testua** agertu beharko da, egilearen kabuz islatuta:
 - LHko portadarako:

XiK

LEHEN HEZKUNTZA-2011

X. IDAZLAN KOADERNOA



- DBH/Batxilergoko portadarako:

XiK

DBH/Batxilergoa – 2011

X. IDAZLAN KOADERNOA

5.- Aurkeztutako lan bakoitzak **“goitzen bat”** izango du eta goitzen hori idatzita izango duen kartazal itxi batean egilearen datuak jarriko dira

6.- **Epaimahai lanak Udal Eskola Kontseiluak** beteko ditu eta dagokion batzarrerako zentro bakoitzak nahi duen ordezkaria izendatuko du.

7.- Azken fasera aurkeztutako lan guztiekin **erakusketa bat egingo** da Lizeo antzokiaren sarrera lekuan, irakurketa ekitaldien egunetan eta hurrengoetan ikusgai egongo dena.

8.- Sariak: Idazlan Koadernoan argitalpenetako portadetan egileen izenak jarriko dira eta irakurketa ekitaldietan, maiatzaren 5ean eta 6an, aipamena egiteaz gain, eskola materiala erosteko bonoak emango zaizkie (30€LHkoa eta 40€DBH/Batxilergokoa).

